



ANAI JUAN ARSUAGA ETXEZARRETA

Ezkiio (1930.01.29) – Irun (2022.06.19)

*“Sar zaitetze ate estutik;
zabala baita hondamenerako atea eta lasaia bidea,
eta asko dira hortik doazenak.
Baina bai estua dela bizirako atea eta meharra bidea,
eta gutxi dira aurkitzen dutenak”*

(Mt 7, 13-14)

Hemen bilduta gaude ez gara-eta itxaropenik gabeko pertsonak, Juan ere ez zen bezala, eta horregatik, atsekabeturik izan arren, ez dugu nahigabeturik jarraitu nahi, baizik eta elkar kontsolatu nahi dugu fede partekatu berean, eta eskerrak eman Anai Juan gure artean bizi izanaren dohainaz gozatu ahal izan dugulako.

Jesusen jarraitzaile gara eta Hark esana digu: *“Neu naiz munduarentzat argia ; niri jarraitzen didana ez da ilunpetan ibiliko, baizik eta bizia ematen duen argia izango du”* (Jn 8, 12). Horregatik dakigu Ebanjelioak ez garamatzala bizitza ilun, aspergarri eta zoritxarreko batera, guztiz alderantzizkora baizik, egiazko zoriontasuna eskaintzen eta ematen baitigu. Nahikoa zaigu Zoriontasunei begiratzea eta ate estu hori gurutzatu ondoren zorionekoak izan diren eta ingurukoak zoriontsu egin dituztenei begiratzea, huts egiten ez duen Harengan fedea eta itxaropena jarritz beren abnegazioaren saria jaso dutenei: *“Mundu honetan askoz gehiago jasoko duzue, eta datorren munduan betiko bizia”* (Lk 18,30).

Eta hala egiaztatu ahal izan dugu Juanen bizitzan. Karmen eta Pedro Joseren semea, duela 92 urte baino gehiago Ezkioko Urrakasoro baserrian jaioa, Gipuzkoako bihotzean, Matxinbentan. Etxe honetara 1943an etorri zenetik, bizitza osoan Jesusen jarraipena izan du ardatz, salletar karisma eta zoriontasunen espirituan bizi izanik. Eta nola ez, esan dezakegu, zoriontsu eta zorioneko izan dela, bere jarrera beti adeitsu, zerbitzala eta eskuzabalarekin. Zein izan da bere sekretua?

Entzun berri dugun ebanjelioan, hiru esaldietan, sakonean estuki loturik dauden hiru alderdi agertu dira; *“ez eman txakurrei gauza sakratuak, ez bota txerriei zuen harribitxiak”*: gure Anaia beti prest egon zen Jainkoaren Hitzaren euria hartzeko, bere barnean landuz bizitza beteagoa eta benetakoago baten desira –otoitzaren, irakurketaren edota formazioaren bidez–, eta Erreinuko altxorra zaintzen eta partekatzen ahaleginduz; *“besteek zuei egitea nahi zenuketen guztia, egin zuek ere besteei”*, gaineratu du ebanjelioak: Juanek besteekin harremanak izateko zuen estiloak, hurbil, errespetuz eta prest egotekoak, adierazten zigun jakin zuela konkretuan eta egunerokoan Maitasunaren agindua bizitzeko deia gauzatzen, besteen ardura hartzeko gai izanik eta zerbitzari bihurtuz; eta, hirugarrenik, *“sar zaitetze ate estutik”*: ezin dugu oinaze eta sufrimendu alderdia alde batera utzi, existentzia orotan ematen baita, baina bizitzarako bideak, bide estua denak, esaten digu, Hitzaren indar eraldatzailean eta Aitaren Maitasunean finkatuta, maitasunaren prezioa ulertu eta onartu ahal izango dugula, benetako maitasunak beti ate estuak igarotzea eskatzen baitu, hor hartzen baitute zentzua.

Hiru esaldi horien argitan, eta Mendiko Hitzaldiaren testuinguruan, gure Anaiaren ibilbidea berrirakur dezakegu eta haren zentzurik sakonena deskubritu. Herri-eskoletan ibiltzea (Gallarta, Zarautz, Los Angeles, Echaide-Borda, Zumarraga, San Martzial, Mendiolabe); ikasketetara dedikatzea hala eskatu zitzaionean; 13 urtez anaigaien eta nobizioen formatzaile izatea; zuzendaritzetan zerbitzu-aldiak ematea (bai eskola-eremuan, bai elkartean), beharrezkoa izan zenean; etxe honetan eman dituen azken urte zoriontsu, aktibo eta zerbitzuzkoek besteen premien aurrean axolagabe inoiz izan ez zen norbaiti buruz hitz egiten digute, norbere interesa eta ongizatea bilatzeaz bainoago, ate zabala alde batera utzi eta Jesusi leial izanik, bide estua hartu zuen, beldur eta ikarak gaindituz: besteei ongia egiteko bidea, berea zuen izaera aldi berean xume eta askearekin, lotsati eta ireki harekin, galdetzeko eta ikasteko gai izatera eramaten zuena, zerbitzatzeko mantala janztera bezala.

Zalantzarik gabe, berarentzat ate estutik igarotzea benetako pozaren eta bizi betearen iturri izan da. Horregatik jar ditzakegu bere ahotan Eduardo Galeano-ren hitz hauek:

*“Guk
geure pozaldien poza dugu.
Eta badugu
geure saminaldien poza ere.
Izan ere ez zaigu interesatzen
kontsumoaren zibilizazioak supermerkatuetan
saltzen duen sufrimendurik gabeko biziak.
Eta harro gaude
hainbeste sufrimenduen prezioaz,
hainbeste maitasunagatik ordaintzen duguna”.*

2002. urteaz geroztik, hemen, Irungo Familia Santuaren elkartean, Anai Juan, Jainkoaren eskuetan jarritz, Jaunari egunero galdetzen jarraitu zion, umiltasunetik eta pobreziatik: *“Zer nahi duzu nigandik?”* eta, segurtasun ezak eta zailtasunak gaindituz, fidatzeko eta tinko mantentzeko gai izan zen, otoitzetik eta zerbitzutik, fideltasunetik eta eskuzabaltasunetik erantzunez: *“Hemen nauzu, Jauna, zure zerbitzura”*.

Horregatik, Eukaristia honetan, Jaunaren pazkoaren oroimenarekin batera, maitasunaren agindua erradikaltasunez ulertu zuen Anaia baten jarraibidea ospatzen dugu: *“Maitatu lagun hurkoa zeure burua bezala”* (Mk 12,31). Eta sagaratuak izango diren ogia eta ardoarekin batera, gure Anai Juanen uste osozko *“bai”* hura Kristorekin betirako bat egingo da, gu guztion onerako.

Eskerririk asko, Juan, gure ondoan bidelagun izan zaitugulako leialtasunean eta senidetasunean. Deien Jainkoak har zaitzala maitasunezko besarkadan.

Egun haundira arte!

ZER NAHI DUZU NIK EGITEA?

Oraintxe, sentitzen zaitudanean,
nire baitan bizi naiz,
oraintxe, inguratzen nauen guztian
zure taupada sentitzen dudanean,
oraintxe, nire isiltasunean agertzen zarenean
Jauna, zer nahi duzu nik egitea?

Hemen nauzu, zure nahia egiteko prest.
Zarataren eta presaren artean
lagundu nazazu une, egoera
eta istant orotan aurkitu zaitzadan.

Jauna, ikus dezadala zer egitea dagokidan,
zein toki hartu behar dudan
senideen zerbitzuan.
Zure Espirituak,
eta ez nire egoismo ezkutuak,
gida ditzala nire urratsak.

Ireki itzazu bideak,
marka itzazu zure Ebanjelioaren
lekuko izatea
ahaleginduko didaten bidezidorrak,
ni neu naizen horretatik
zure maitasunezko lankide izan nadin.

Badakit nirekin kontaktzen duzula betidanik,
erreinua eraikitzen zurekin jardun dezadan.
Zure aurrean, Jauna,
naizen bezala, nire ezerezean...
zer nahi duzu nik egitea?

José Real Navarro

